

# Eskola birpentsatu



Zer falta da eskolan? Zer gustatuko litzaiguke egitea eskolan? Talde moduan arituko gara eskolan erabiltzen ez den espazio bat bilatzeko. Prozesu parte-hartzaile baten bidez, gure beharrak eta nahiak identifikatuko ditugu, eta esanahi eta erabilera berriak esleituko dizkiogu espazio horri, guztion artean berreraikiz. Behar berriak asetzeko soluzioak bilatuko ditugu.

## Helburuak

- Oreakari Estudioren obrara eta prozesuetara hurbiltzea.
- Lan kolaboratibo eta parte-hartzailea sustatzea obra bat egiteko.
- Eskolako espazioari buruz hausnartzea eta beste modu batean erabiltzea, zentzu berriak ematea.
- Jasangarritasunaz kontzientziaztea.

## Aipamenak

Futbol Ateen Hackeoa - A3: <https://orekari.coop/portfolio/patioaren-ordua-futbol-ateen-hackeoa/>

Periferia birpentsatu - Etxabakoitz: <https://orekari.coop/portfolio/repensar-la-periferia/>

Periferia birpentsatu - Soto Lezkairu: <https://orekari.coop/portfolio/repensar-la-periferia-soto-lezkairu/>

Enorme Studio - Picnictopia: <https://enormestudio.es/picnictopia>

M-etxea - Har-etxea: <https://m-etxea.com/proiektuak/har-etxea/>

M-etxea - Kalehabitat: <https://m-etxea.com/proiektuak/kalehabitat/>

Todo por la praxis - Gazteentzako espazioak. Callan: <https://todoporlapraxis.es/090-youth-spaces-%c2%b7-callan/>

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

1. Oreakari Estudioren obrara eta prozesuetara hurbilduko gara. Eta galdera hauek botako ditugu:
  - Zer motatako prozesuak sortzen dituzte haien proiektuetan?
  - Zer baliabide erabiltzen dituzte haiek burutzeko?
  - Nola «aktibatzen» dituzte sortutako espazioak edo elementuak?

2. Eskolan erabiltzen ez den espazio bat bilatuko dugu, erabilerarik ez daukan toki bat. Paseo bat emango dugu eskolan barna, eta, plano edo mapa batean, erabiltzen ez diren espazioak markatuko ditu bakoitzak. Edozein espazio izan daiteke: horma bat, ikasgela bat, izkina bat, armairu bat, atzeko patioa... Beste gela batzuetan eta irakasleei edo langileei ere galdetu ahal diegu.

3. Esku hartzeko espazioa aukeratuko dugu guztion artean.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

Erabiltzen ez den espazioa agerian jarriko dugu. Horma-irudiekin marka dezakegu. Galdera hauek botako ditugu: Zer da eskolan gertatzen ez den eta gertatzea gustatuko litzaigukeen zerbait? Zer falta da eskolan? Zer egin dezakegu espazio horretan? Adibidez: liburutegi bat, rokodromo bat, agertoki ireki bat, eremu berde edo landaredun bat, lasai irakurtzeko txoko bat, animaliak dituen zonalde bat, dantzatzeko toki bat...

Espazioari emango diogun erabilera erabakitzeke, inkesta bat egin dezakegu, eta eskolan banatu. Atera diren ideiak hausnartu,

eta erabaki bat hartuko dugu.

1. fasea. Eraikitzea.

- Espaziora joango gara egin daitekeena ikusteko eta aukerak aztertzeko. Hasteko, espazioa garbi dezakegu, eta, behar izanez gero, auzolanak antolatu herriko edo auzoko jendeak ere parte har dezan.
- Emango diogun erabileraren arabera, ekintza bat edo beste egingo dugu espazioan: margotu, apaindu, elementuak ipini edo eraiki... Horretarako, material birziklatuak erabiltzen ahaleginduko gara.

2. fasea. Aktibatzea.

- Sortutako espazio berriri izena jarriko diogu, eta horma-irudi bat egingo dugu hura markatzeko.
- Inaugurazio bat ospatuko dugu espazio berria eskolaren, herriaren edo auzoaren aurrean aurkezteko. Programa oso bat diseinatuko dugu, hainbat jarduerekin; esaterako, aurkezpen bat, kontzertuak, emanaldiak, hitzaldiak edo emango diogun erabilerarekin lotutako tailerrak.
- Aukeratu dugun gaia jorratzen duen kolektiboren baten partaidetza ere bila dezakegu.

### Ondorioak eta lerro irekiak

1. Espazioa eskolan geratzeko eta erabiltzeko aukeretan pentsatuko dugu. Nola eman diezaiokegu jarraitasuna sortu dugunari?

Espazioa urtean behin aktiba dezakegu ekitaldi baten bidez, astean behin jarduerak antola ditzakegu, egunero ere erabil daiteke...